



Eusko Jaurlaritzaren Adierazpena,
Terrorismoaren Biktimen Europako Egunaren harira
Memoria eta etorkizuna.
Elkarrekin eraiki

Gaurko egunez, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna dugun honetan, zenbait hitz esan nahi ditugu Europan eta munduan biktima direnei eta, batik bat, gure ingururik hurbilenean biktima izan direnei eta biktima direnei zuzenduta; afektuz, elkartasunez eta enpatiaz beteriko hitzak dira, egindako akatsak zintzoki aitortzeko hitzak, eta orainari eta geroari begirako bidea elkarrekin urratzeko gonbita egiteko hitzak.

Terrorismoaren biktimekiko elkartasuna ez da gaur hasten den zeregina. Urteetan zehar ehuntzen ari den nahi etenik gabea da, eta aitortu egin behar da talde sozialen, politikoen zein parlamentarioen eta aurreko legealdietako gobernuen bultzada eta ekarria.

Nolanahi ere, eta lehen ere esana dugu hau, egindakoak ez genituen ongi egin beti. 90eko hamarkadaren lehenengo urteak arte, erakundeak beti berandu iritsi gara biktimen kausara. Ondorengo urteetan, berriz, sarritan, banaketa politikoen desitxuratu egin zuten solidaritatearen batasuna. Behin baino gehiagotan egin du, bada, egin beharreko autokritika Eusko Jaurlaritzak, eta eskatu die barkamena jasan ditugun terrorismo guztien biktima izan direnei, ez genielako behar zuten arreta eskaini; batez ere, 70eko eta 80ko hamarkadako biktimei. Gaur hala diogu, berriz ere: azkarrago erreakzionatu behar genuen, eta hobeto eta elkar hartuta jardun behar genuen.

Bidearen zati bat egina dugu, eta egiteke dugu beste zati bat. Biktimei zuzendutako politikak, aurrerantzean ere, egia, justizia eta erreparazioaren eskubideak betetzera bideratuko dira. Eta, horretarako, biktimen eskubideen berdintasun-printzipioari jarraituko zaio beti. Printzipio horrek bi adierazpen izango ditu: batetik, biktimen artean bereizkeria egitea eragotziko dugu; bestetik, biktimizazio-arrazoiei dagokienez, justifikazio nahia dakarren parekatze oro gaitzetsiko dugu.

ETA amaitu dela-eta, ezin dugu hurrengo orrira pasa iraganen gertatutakoa berariaz kritikatu gabe. Hitz ematen dugu gure aldetik biktimen oroimena eta ohorea ez direla bazterturik geratuko, iragana ahazturik etorkizunera begiratzeagatik. Edozein talde terroristaren biktimei dagozkien eskubideak betetze bidean, bada topagune komun bat: argi eta garbi aitortzea, batetik, pairatu zuten indarkeria bidegabea izan zela, eta, bestetik, egia argitzea aitortzen horri lotuta dagoela.

Beharrezkoa da terrorismoa deslegitimatze ariketa pedagogikoa egitea, agerian gera dadin sekulako hutsegite etiko, politiko eta demokratikoa izan dela eta oinarria ezar dezan “sekula gehiago ez” lema defendatzeko. Hutsegite horren abiapuntua, hain zuzen, arrazoi politiko, ideologiko, instrumental edo estatu-arrazoi bati biktimen biziari eta haien giza duintasunari baino balio handiagoa ematen dion pentsamendua da.

Biktima erailen senitartekoek eta biktima guztiek jakin behar dute ez dagoela sufritu zutena justifikatzen duen ezer, ezerk ez duela haien giza duintasunak baino balio handiagorik. Jakin behar dute, halaber, euskal gizarteak eta haren erakundeek ezagutzen eta aitortzen dutela pairatu zuten sufrimendu jasanezina.

Biktimei buruzko politikak iraganari begira egon dira. Hori beharrezkoa izan da, beharrezkoa da eta beharrezkoa izango da. Baina biktimentzat eta gizarte osoarentzat murriztailea da iraganari soilik begiratzen dion ikuspegia. Izan ere, biktimekiko begirada etorkizunarekin ere uztartu daiteke. Horregatik, biktimen errekonozimendua biktimek gaur egungo zein etorkizuneko gizartean bizikidetzara eraikitze orduan duten zereginaren sustapenarekin lagundu behar da.

Memoria eta etorkizuna uztartuko dituen bidea eraikitzen ari gara. Horrekin batera, bide hori elkarrekin eraikitzea da erronka estrategikoa. Iraganaren memoria kritikoa egin behar dugu, bizikidetzara eta etorkizunara eraikitze xedez, eta biktimen eta gizartearen arteko batasuna eta biktimekiko elkartasunari begira sentsibiltate politiko guztien batasuna bilatzen duena.

Mezu hau gorde duen lekukoa terrorismoaren biktimekiko elkartasunaren erakusgarri da. Gaur egin dugun kontzentrazio hau, berriz, gai honen inguruan dugun adostasunaren erakusgarri; iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko edukiz bete.

Memoria eta etorkizuna. Elkarrekin eraiki.

Eusko Jaurlaritza. 2017ko martxoaren 10a